

«Zoroaldi txiki horiek oso ederrak dira, eta barre ozenak beharrezkoak»

Irati Goikoetxea Idazlea



Irati Goikoetxea, bere liburuarekin. :: usoz

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Irati Goikoetxea bere lehen liburua plazaratu du, hamalau kontakizuneko bilduma: 'Andraizea'. Erein etxearen bidez publikatu du eta, bertako editore Inazio Mujika Iraolaren ustez, surrealismoa ageri da Iratiren istorioetan: «Kontakizun errealistak dira, baina batzuetan surrealismora jotzen dute».

«Andraizea» du izenburu liburuak. Aspaldiko esera da: «Hego haizea, emakume-haizea, ero-haizea».

«Bai, aspaldiko esamoldea da, nik hala ere orain dela lau-bost urte ezagutu nuen. Ez dut ikertu zer konnotazio dituen. Askotan, 'ero' hitzari zentzu nahiko negatibo eta iluna ematen zaio, eta ni horri buelta ematen saiatu naiz. Niretzat, zoroaldi txiki horiek oso ederrak dira. Barre ozen horiek oso beharrezkoak dira bizitzan. Eta zergatik ez horiek erakutsi? Hala ere, gizarteak aurrera doa eta lehen ezkutatzaren ziren gauza asko, gaur egun beldur gutxiagorekin erakusten dira. Baina ez da eromenari buruzko liburua. Jolas bat izan da, eta askotan bizitzan inkontzienteki egiten ditugun zenbait ekintza edo jardura kontzienteki paper gainean ipintzeko ahalgina. Buruak egiten dituen bidaia horiek, konturatzaren ez garen bidaia horiek, kontatu nahi izan ditut. Hala ere, uste dut ez diogula geure buruari bidaia egiten utzen, mugak ipintzen dizkiogula behar baino gehiago».

«Pentsamendua askatu egin behar dela uste duzu, beraz. Eta ahotik ateratzeko aukera eman».

«Bai, eta horregatik ipini ditut elkarrizketak liburuan. Pisu handia dute liburuan zehar. Hor nonbait aipatu dute elkarrizketa hotzak eta motzak direla, eta bai, uste dut azkarregi isiltzen garela. Baina behartuko bagenu geure burua libreki hurrengo galdera egitera, elkarrizketek beste informazio bat emango ligukete eta, aldi berean, jolas egingo genuke».

«Euskaldunok, beharbada, bereziki estuak gara alde horretatik. Andaluziarrek seguru asko ero-puntu hori garatuagoa daukate».

«Ez dakit... Topikoak hori daude, baina badakizu: topikoak...»

«Liburua zabaldu eta zeure argazkia ikus dezakegu. Atzean Txindoki mendia agertzen da, ezta?»

«Bai, Aldaon mendian ateratako argazkia da. Zorionez, Beasainen jaio

ginen, Aizkorni eta Aralarretik gertu. Oso zaletasun barneratua dut mendia, eta izugarri gozatzen dut. Oraintxe esaten ari naizen gauza hauek hausnartzeko oso toki aproposo izaten da mendia. Mendiak aukera ematen du nor bere buruarekin pentsatzeko eta aldamenekoarekin modu oso lasaian hitz egiteko».

«Eskaini, berriz, anaia Ekaitzi eskaini diozu liburua. Berak izan al du zerikusirik obra honetan?»

«Ekaitzek betidanik izan du eragina. Nahiz eta lau urte zaharrago izan, beti nahiko eskuz esku egin dugu lan eta antzeko zaletasunak ditugunez ordu asko eman dugu elkarren ondoan. Niretzat, Ekaitz maisu handi bat da, eta nik idatzi ahala berak irakurtzen ditu gauzak. Bere aholkuekin konfiantza eta segurtasuna eman izan dit. Esana dut 'Carmen' ipuina mugarriz izan zela niretzat, eta anaiak jakin zuen detektatzen. Berarentzat ere txoke moduko bat izan zen. Esan zidan polita litzatekeela bide horretatik jarraitzea».

«'Carmen' horrekin lehiaketa bat irabazi zenuen zoroan. Ipuin hartan hasi al zen orain liburu honetan dagoen 'erokeria-puntu' hori?»

«Bai, hala uste dut. Baita ere, orduan hasi nintzen elkarrizketari garrantzia ematen; elkarrizketa arinak, betiere. Carmen pertsonaia asmatua da, irudimenezkoa».

«Ipuinetako bukaerak ere 'zoroak' dira, askeak?»

«Trama pisutsurik ez da existitzen ipuin horietan, beraz ez dago trama askatzeko beharrik ere. Gustura gelditu naiz emandako bukaerekin».

«Matematikako irakaslea zara. Matematikak ba al du presentziarik zure istorioetan?»

«Bai, piska bat, inkontzienteki beharbada. Gustatzen zait sentsazio batzuei zenbakiak erantzea; adibidez, lepoak neurtzea...»

«Segurua Irratian larunbatetan baduzu saio bat, 'Itaka'».

«Lan zoragarria da, hamaila urte daramatzagu. Ekaitz, anaia hasi zen lagun batekin, gero ni hasi nintzen piska bat laguntzen... Larunbat goizetako afizio izanik, ofizio bihurtu dugu. Oso serio hartzen dugu. Kultur sormenari lekutxo bat egiten saiatzen gara. Sortzaileengana iristeko aukera ematen digu. Goxoki bat da irratsaio hori egitea».

«Bai anaia Ekaitz bai zu Nafarroako institutu banatan ari zarete irakasle. Baina larunbatero eror-tzen zarete».

«Larunbatero ez, ostiral eguerdiero. Segura Irratiko saioa existituko ez balitz ere, uste dut astero etorriko ginetekeela Goierri aldera. Orain dela gutxi, irakurle-talde batean oso gai polita atera zen. Leire Bilbaoren olerki-liburua irakurtzen ari ginen eta esaldi polita entzun nuen. Nongoak garen? Arropa garbitzen dugun herrikoak. Eta arropa kuttunena Beasainen garbitzen dugu oraindik».



ANDRAIZEA
IRATI GOIKOETXEA

Generoa: Ipuinak.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 163.
Prezioa: 15 euro.

«'Ero' hitzari zentzu nahiko negatibo eta iluna ematen zaio, eta ni horri buelta ematen saiatu naiz»

«Goxoki bat da Segura Irratiko saio hori egitea. Sortzaileengana iristeko aukera ematen digu»